

PARKEEN KUDEAKETA

Dударик gabe, planteatzen zaigun lehendabiziko zalantza parkea definitzean datza, zeinak nahastera eraman dakiguen ikuskerak dituen (parke naturalak, herri-parkeak, jolas-parkeak...). Herrietako berdeguneen barruan ikuskera modu desberdinak daude eta beraz definitzeko modu desberdinak. Batentzako enparantzak direnak, beste batentzako parke izan daitezke. Udalek “naturalizat” izendatzen dituztenak ere, ezer gutxi laguntzen dute, izan ere, ez dute legeak esaten duen “parke naturalarekin” zerikusirik.

HARITZALDE-n, berdegune desberdinen definizio egokiarekin hasi beharko litzateke eta beren izendapenaren arabera banatu beharko litzatekeela pentsatzen dugu. **Herri-parke landaretza anitzeko berdegune zabal bezala, ulertzen dugu, zeinak bere hedapena mugatua duen.**

Interesgarria litzateke izendatu beharreko lekuetatik izen desberdinak eratzeara. Honela zabal zonaldea genduke, jolasterako area, aisialdirako, berdea... enparantza, haur-parkea, jolastoki, jolasteko edo besterik gabe parkea. Behin hau guztia argituta eta herri-parkea definituta, hauen kudeaketan sar gaitezke.

Lehenik eta behin, parke horien helburua eta ematen zaien erabilera hartu beharko lirateke kontuan. Begibistakoa da, ingurugiro urbano gisa ezagutzen den horretan funtsezko garraantzia duten balio sozial handiko gune berdeei buruz ari garela. Ezin dugu ahaztu, halaber, animalia espezie askorentzat gordeleku gisa jokatzeko dutela, hauetariko batzuen hiriko azken arrastoak parke hauetan egonik. Parke urbanoak, etxetik gertu ditugun altxor txikiak dira, hirigunearen barnean aberastasun biologiko erlatibo bat mantetzen dutenak.

Kasu hauetan behinik behin, biodibertsitatea hertsiki lotuta dago nitxo dibertsitatearekin. Hau da landaretza-geruza kara mantetzea garrantzitsua izatearen arrazoietariko bat: belarkara, zuhaixkara eta zuhaitzkara. Era berean gune hezeak (putzu

eta erreka txikiak), soro eta zelaiak mantentzea badu garrantzia. Habiten desberdintasunak animalien desberdintasuna ekartzen du, zeren toki bakoitzeko ezaugarriak han jaiotako, hazitako, eta biziko diren animaliak zehazten ditu. Norbaitek pentsa dezake, hiri-barruko batean dibertsitateari buruz hitzegitea txorakeri bat dela, baina ezin da ahaztu erdi-giroko heziketan duen papera.

Landarea, parke barruan, funtsio desberdinak betetzen ditu: soziala, estetikoa, akustikoa, lur-babesa, animalien babes... HARITZALDEKOEK pentsatzen dugu hiri-barruko parke batean funtsio desberdinak eman behar direla inguruko oreka lortu nahian. Parke guztiak ez dira berdinak, batzuk lorategiak baino ez dira eta beste batzuk gaizki moldatuta daude. Parke beran leku desberdinak aurki ditzazkegu, dauden landarengatik eta egiten den serbitzuarengatik. Gero eta lorategi, plaza eta ibilbide gehiago enbor handiekin apainduta daude.

Ez da gura nahia, soilik helburu estetikoa betetzen dituzten lorategi nahiz loraguneen aurka joatea. Gure ustez parkeetan apaindurentzako toki sobera dago baina ez zaigu ondo iruditzen, lorategi eta espezie exotikoz beteriko parke guztiak botaniko edo antzerako bihurtu nahi izatea. Hauek guztiek, garestiak izateaz gain zenbait kasutan inguru naturalaren inbasio arrazoi izan daitezke, askotan bertakoak diren espezien ordezkapena eta hondaki dakartzan ondorioak ekar ditzakelarik bere barne. Hau guztia dela eta, aldezturik beharrezko ikerlana nahiz ziurtasun neurriak ziurtatzea proposatuko genuke. Bertako landaretza mantentzeak are garrantzi gehiago hartzen du, bertako ingurua malkortsu eta eskuraezina baldin bada. Inguru hauek bertako animalia espezie ugariaren babesleku, elikapen eta hezkuntza gune izateaz gain, substratoek euste eta egonkortasun funtzioa betetzen dute, bertatik zirkulatzen duen uraren ekintza higadura ekidituz.

Gure asmoa ez da parke guztiak basoak bihurtzea, baina bai beharrezkoa den zainketa egitea. Era horretan parkeek euren funtzioak, batez ere soziala, beteko lituzkete, natura bazterturik utzi gabe. Inguru hauetan, lorategi, bide, jolas-toki eta zuhaitzentzako lekua dago, baina baita basoko landareentzako. Horretarako, oinez iristeko zailagoak diren lekuak aprobetxatu daitezke, parkeen mugak... Kontutan hartu

behar da bertako landareak oso ondo egokitzen direla bertako izateari. Behin betirako baztertu behar ditugu dauzkagun kontzeptuak eta baita gaixki jokatuarazi dizkigutenak. Tamalgarria da sasiak eta horrelako belarrek fama txarra edukitzea gur gustukoak ez izateagatik.

Edozein landare kentzea, zenbait animaliei kalte egitea da. Zuhaikek deusezten badira, txoriak ezingo dituzte beren habiak bertan egin, eta horrek eta horrek berauen desagerpena ekar lezake. Guk, gure aldetik, bertako landareak mantentzeari eta animalientzako babeslekuak egiten jarraitzeari proposatzen dugu.

Beste aldetik, zuhaitzak zahartzen hasten dira, batzuk gaixotu eta hil egiten direlarik. Horregatik, zenbait zuhaitz ordezkatzeko beharrezkoa dela pentsatzen dugu. Ordezkatu beharreko zuhaitzen kopurua haundiegia denean arazoak agertzen dira, eta horregatik, eta hau gerta ez dedin, berauen egoeraren jarraipena egitea komeni dela adierazten dugu.

Lehen esandakoarekin elkartuta, hilik dauden zuhaitzekin zer egitearekin kezka sortzen da. Gehienetan moztu egiten dira. Zuhaitza, bere egoera eta dagoen lekuarengatik arriskutsua dela sumatuz gero, kendu egin behar dela ados gaude. Era bat desberdina da, zuhaitzak batere kalterik egiten ez duenean. Orduan bere mantenimenduarengatik apostua egiten dugu. Zeren zahar eta erdi ustela dauden egurrak zenbait animalientzako etxe eta janari izaten baitira eta bereesistentziari erabat loturik daude. HARITZALDE-n, estetika, zihurtasuna eta funtzionaltasuna nastu daitezkeela ziur gaude. Gainera, enbor zahar eta erdi ustelak mantentzea, lurrari emandako janaria bueltatzea da.

Hiri barruko parkeen garbitasuna eta zainketa kontuan harturik, zakar-ontzi, iturri, eserleku eta kale-argiak ondo kokaturik egon behar dutela pentsatzen dugu, bere kopuru eta zainketa gutxiegi gabe.

Parkeak sailkatzeak, bertan egin behar diren zainketa lanak zehaztuko ditu. Lorategietan eta ibiltzeko erabiltzen diren lur-sailetan, belarra nahiko maiz moztu behar

da. Ez dauka batere zentzurik erabiltzen ez diren lekuetan sustraiak kentzeak. Honek, bertako landareen desagerpena eragiten du.

Hostoen bilketa ibilbide, lorategi eta soropiloetan bakarrik egin behar da. Askotan batere zentzurik gabe hostoak biltzen dira lurra babesik gabe utziz. Honek higadura eta lurraren emankortasunean eragina dauka.

Zainketa, naturaren garaiak eta datak errespetatuz jarraitu behar da.

Bukatzeko, ezin da ahaztu hiri barruko parkeek didaktikoki duten garrantzia. Horregatik, natur-hezkuntza ikastaroak, ibilbide gidatuak, tailerrak eta zenbait aktibitate egitea proposatzen dugu, denok naturarekin kontzientzia har dezagun.